

# Ahozko adierazpena • Eztabaida batean parte hartzea

## 1. Jarduera (gela osoak)

### Eztabaida bat zer den ulertzea

- Irakasleak klasean eztabaida baten antolatzea proposatzen du. Ikasle batzuen ihardukitzeak irakur itzazu. Ohar horiekin ados ote zarete?

- a-** Ez du balio parte hartzea, ez naute sekula entzuten.
- b-** Ez da lan notatua, ez dut behatzen.
- c-** Ongi da, pentsatzen dudana erraten ahalko baitut.
- d-** Jadanik ene iritzia badut. Ez dut besteek pentsatzen dutenaren jakiteko beharrik.
- e-** Interesatzen gaituenaz mintzatzen ahalko gara.
- f-** Ni, beti ados naiz ene adiskidearekin!



### Oroït

Eztabaida batean parte hartzen duzularik, **pentsatzen duzuna** adieraz ezazu eta **besteak entzun** itzazu. Haizu duzu iritziz edo **ideiaz aldatzea** eztabaidan barna.

## 2. Jarduera (gela osoak)

### Besteen hitzaren errespetatzea

- Ikasleek aire-hartzean manatzaile (taldeburu) baten beharra dutenez eztabaidatzen dute. Zein dira hitz-hartze (erranaldi) desgokiak? Esplika ezazue zergatik.



- a-** Taldeburu baten beharra dugu ez baitakigu beti zertan jostatu.
- b-** Ontsa da norbaitek joko-arauak erabaki ditzan, horrela denek arau berak ditugu.
- c-** Zuk, zinez, zernahi erraten duzu!
- d-** Ez, manatzailea beti azkarrena delako. Eta besteek ezin dituztelako jokoak hautatu!
- e-** Isil zaitez, zure solasetik ez da fitsik ulertzen!
- f-** Geldi! Isil! Ene aldi da mintzatzea!

### Oroït

Eztabaida batean, parte har ezazu **bakoitzaren aldiak** eta **jendetasun** arauak errespetatuz.

### 3. Jarduera (taldeka)

#### Argumentu baten ezagutzea eta ekartzea (erratea)

● **Ikasleek aire-hartzean manatzaile (taldeburu) baten beharra dutenetz eztabaidatzen segitzen dute. Zein dira argumentu bat erabiltzen dutenak? Zuen hautuak esplika itzazue.**

**Hodei:** Ongi da taldeburu baten ukaitea!

**Lea:** Erabakitzen duen manatzaile batekin, denbora gutxiago galtzen dugu jokoan hautatzen!

**Mairu:** Egun oroz taldeburu ezberdina baldin bada, egunero joko ezberdinetan ariko gara!

**Manon:** Ez da taldebururik behar!

● **Ondoko erranaldi hastapenak osa itzazu argumentu batekin eta lotura-hitzak erabiliz: bestela, bestenaz, -(e)naz geroz..., bait-..., -e)lako, zeren...bait-..., ...-tzeko, ...-tzearren,...dadin, ...dezan, -eko, -tzat,...**

**a-**Ez da sobera gozokirik jan behar...

**b-**Argia itzali behar da...

**c-**Hobe da kirola goizez egitea...

**d-**Goizik oheratu behar da...

#### Oroit

Besteen konbentzitzeko **argumentuak** erabil itzazu. **Lotura hitzak** baliatu behar dira erranaldien antolatzeke.

### 4. Jarduera (taldeka)

#### Nork bere ikusmoldearen esplikatzea

● **Lehen argumentua (1) osoa da, bigarrena ez (2). Zergatik? Konklusio bat proposa ezazue (2) argumentuarentzat.**

**(1)** Autobusa hartzen baldin bada autoaren ordeztu, energia edo erregai gutiago erabiltzen da eta ondorioz gutiago kutsatzen. Aise hobekiago da ingurumenarentzat!

**(2)** Paperak zikin-ontzi horian botatzen baldin badira birziklatuak izanen dira!

#### Oroit

Zure ikusmoldearen esplikatzeke **konklusio** batez bururatzen diren **argumentuak** erabil itzazu.

## Eztabaida batean parte hartzea (taldeka)

Hiru taldetan ezar zaitezte. Talde bakoitzak gai bat hautatuko du eta argumentuak xerkatuko ditu eztabaidatzeko.

*Argumentuak entsegu kaieran idatz itzazue.*




**a-** Eskola batzuetan, ikasle guzietan uniforme bera janzten dute. Alde zarete ala kontra?



**b-** Herri batzuetan, ikasleak, egunero, astelehenetik larunbatera, 8etarik 14etara klaseetara doaz. Alde zarete ala kontra?

**c-** Lehen, baziren neskendako eskolak eta mutikoendako eskolak. Alde zarete ala kontra?



### Hitz-kutxa

#### **Segurtamenaren edo sinesteen adierazteko:**

pentsatzen dut, ene iritziko, ene iduriko, uste dut, segur naiz, segur da, ziur, dudarik gabe,...

#### **Ezadostasunaren adierazteko:**

ez naiz ados, nik erran nezake, alderantziz, ez dut horrela pentsatzen, zure argumentuak entzuten ditut baina..., nik izatekotz pentsa nezake

#### **Erranaldien antolatzeke lotura-hitzak:**

bestenaz, bestela, ... -(e)naz geroz..., bait-...,...-e)lako, zeren...bait-..., ...-tzeko, ...-tzearren,...dadin, ...dezan, ... -eko,...-tzat,...